Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

340

EBAZPENA, 2009ko urriaren 28koa, Energia eta Meategien zuzendariarena. Honen bitartez, administrazio-baimena ematen zaio Cepsa Gas Licuado SAri, Donemiliaga udalerriko Narbaiza herrian kanalizatutako PGLa gorde, banatu eta hornitzeko instalazioak eraikitzeko.

Espediente-zenbakia: 01-35437/CG-f-2009-1-PRD/mmb

Pedro Pablo Zubillaga López-ek, Cepsa Gas Licuado SAren izenean eta ordez, baimena eskatu du 2009-03-17an Donemiliagan dagoen Narbaiza herrian etxeetarako eta erabilera komertzialerako gas propano kanalizatua gorde, banatu eta hornitzeko instalazioak eraikitzeko.

Espediente hori ebazteko, beharrezkoa izango da jarraian aipatzen diren zuzenbideko oinarriak kontuan hartu eta horien aipamena egitea:

AURREKARIAK

Bat.– 2009ko martxoaren 17an Cepsa Gas Licuado SAk administrazio-baimena eskatu zuen Donemiliagan dagoen Narbaiza herrian etxeetarako eta erabilera komertzialetarako gas propano kanalizatua gorde, banatu eta hornitzeko.

Bi.– Urriaren 7ko Hidrokarburoen Sektoreari buruzko 34/1998 Legeak (1998-10-08ko EBO) adierazten du gas kanalizatuak hornitzeko administrazio-baimenak eman aurretik haiei dagozkien proiektuak jendaurrean erakutsi behar direla. Legez ezarritako eran eta hedabideetan egin zen aginduzko informazio-erakustaldi publikoa: 2009-04-17ko EHAAn, 2009-04-06ko ALHAOn, 2009-04-02ko El Correo egunkarian eta 2009-03-31n Donemiliagako udaletxeko iragarki-taulan.

Ebazpen honen oinarriak honakoak dira:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Energia eta Meategien Zuzendaritza da ebazpen hau emateko organo eskuduna, betiere Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

340

RESOLUCIÓN de 28 de octubre de 2009, del Director de Energía y Minas, por la que se otorga a Cepsa Gas Licuado, S.A. la autorización administrativa para la construcción de las instalaciones de almacenamiento, red de distribución y suministro de GLP canalizado en Narvaja término municipal de San Millán.

Número de expediente: 01-35437/CG-f-2009-1-PRD/mmb

D. Pedro Pablo Zubillaga López, en nombre y representación de Cepsa Gas Licuado, S.A. ha solicitado con fecha 17-03-2009 la autorización de la construcción de las instalaciones de almacenamiento, red de distribución y suministro de gas propano canalizado para usos domésticos y comerciales en Narvaja, en el Término Municipal de San Millán.

En la Resolución del expediente, es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Con fecha 17 de marzo de 2009 se presentó por Cepsa Gas Licuado, S.A., solicitud de autorización Administrativa, para el almacenamiento, red de distribución y suministro de gas propano canalizado para usos domésticos y comerciales en Narvaja, en el Término Municipal de San Millán.

Dos.– En la Ley 34/1998, de 7 de octubre (BOE de 08-10-1998), del Sector de Hidrocarburos, se indica que las autorizaciones administrativas para el suministro de gases canalizados deben otorgarse tras información pública en los Proyectos correspondientes. Se realizó la información pública preceptiva en las condiciones y en los medios previstos legalmente: en el BOPV el 17-04-2009, en el BOTHA el 06-04-2009, en el periódico El Correo el 02-04-2009, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de San Millán el 31-03-2009.

La presente Resolución se basa en los siguientes:

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución, según lo previsto en el Decreto 514/2009 de 22 de septiembre, por el que se establece la es-

irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bi.– Urriaren 26an 2913/1973 Errege Dekretu bidez onartutako (1973-11-21eko EBO) Hidrokarburoen Sektoreko 34/1998 Legeak, urriaren 7koak, gasa banatzeko sareak eraikitzeko, aurretiaz administrazio-baimena eduki beharra ezartzen du.

Hiru.– Espedientearen izapidetzeari zein edukiari dagokienez eta Cepsa Gas Licuado SAk aurkeztutako argibideei dagokienez, egiaztaturik dago bete direla legeriak ezarritako betekizun eta baldintzak.

Lau.– Eskatzaileak, hau da, Cepsa Gas Licuado SAk proiektua egiteko lege, teknika, ekonomia eta finantza-gaitasuna baduela egiaztaturik dago.

Aipatutako lege-manuak, eta oro har aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honakoa

EBATZI DU:

Bat.– Baimena ematea Cepsa Gas Licuado SAri Donemiliagan dagoen Narbaiza herrian etxeetarako eta erabilera komertzialerako gas propano kanalizatua gorde, banatu eta hornitzeko instalazioak eraikitzeko.

Ezaugarri nagusiak aurkeztutako proiektuaren memorian eta planoetan agertzen dira. Proiektua José Luis Aburuza Jauregui Ingeniari Tekniko jaunak sinatu du (kolegiatu-zenbakia: 629), eta Arabako Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak bisatu du 2009-03-16an, 027744 zenbakiarekin. Hauek izango dira haren oinarrizko ezaugarriak:

– 4,88 m3-ko lurgaineko depositu bi, orduko 100 kg erregulatzeko ekipoa dutenak. Suteen aurkako segurtasun- eta babes-ekipoak izango ditu.

– Banaketa-sarea SDR-11 dentsitate ertaineko polietilenoz egingo da, MOP < 2 bar-eko gasa eramateko. Diametroak 63 eta 40 mm-koak izango dira. Hurrenez hurren, 238 m eta 995 m-ko luzerak izango dituzte. Horrez gain, 46 hartune egongo dira, 32 mm-ko dentsitate ertaineko polietilenozko hodiez eginak.

Bi.– Administrazio-baimen honek ondoko baldintzak bete beharra dakar:

Gordetzeko tokia eta banaketa-sarea hartuko dituen zonaldearen mugak aurkeztutako proiektuaren 1. planoan agertzen dira zehaztuta, eta Narbaizan dago toki hori.

Cepsa Gas Licuado SAk seiehun eta hamar euro eta hamar zentimoko (610,10) fidantza jarri beharko du 2 hileko epean, baimen honek berresten duen

tructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (BOPV de 24-09-2009).

Dos.– La Ley 34/1998, de 7 de octubre (BOE de 08-10-1998), del Sector de Hidrocarburos, aprobado por RD 2913/1973 de 26 de octubre (BOE de 21-11-1973) establecen la exigencia de la autorización administrativa previa, para la construcción de redes de distribución de gas.

Tres.– En la tramitación del expediente y en el contenido del mismo, así como en aclaraciones presentadas por Cepsa Gas Licuado, S.A. queda acreditado el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidas por la legislación en la materia en cuestión.

Cuatro.– Asimismo, queda acreditada la capacidad legal, técnica y económico-financiera del solicitante, Cepsa Gas Licuado, S.A. para la realización del Proyecto.

Visto los preceptores legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVE:

Uno.– Autorizar a Cepsa Gas Licuado, S.A., la construcción de las instalaciones de almacenamiento, red de distribución y suministro de gas propano canalizado para usos domésticos y comerciales en Narvaja, Término municipal de San Millán.

Las características principales se describen en la memoria y planos del proyecto presentado, firmado por el Ingeniero Técnico de Industrial D. José Luis Aburuza Jauregui, Colegiada n.º 629 y visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Técnicos Industriales de Álava con fecha 16-03-2009 con el n.º 027744 y tendrá las siguientes características fundamentales:

– Dos depósitos aéreos de 4,88 m3, con equipo de regulación de 100 Kg/h dotado de equipos de seguridad y de protección contra incendios.

– La red de distribución se realizará en Polietileno de Media Densidad SDR-11 para vehicular gas en MOP < 2 bar, con diámetros de 63 y de 40 mm con unas longitudes respectivas de 238 m y 995 m. Además de 46 acometidas con tubería de polietileno de media densidad de 32 mm.

Dos.– El otorgamiento de la presente autorización administrativa se ajustará a las condiciones siguientes:

La delimitación de la zona en la que se debe prestar ubicar el almacenamiento y la red de distribución, se determinan por el plano n.º 1 del proyecto presentado, correspondiendo la localidad de Narvaja.

Cepsa Gas Licuado, S.A. constituirá en el plazo de 2 meses una fianza por seiscientos diez euros y diez céntimos (610,10) euros en garantía del cumplimento

konpromisotik datozkion betebeharrak beteko dituela bermatzeko, urriaren 7ko 34/1998 Legeko 73.4 artikuluan ezarritakoa betez. Fidantza hori EAEko Gordailuen Kutxa Nagusian jarriko da, dirutan edo Estatuko baloreetan, edo bankuko abalen bidez, uztailaren 21eko 1775/1967 Dekretuko 11. artikuluaren 3. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, edo Espainia EEEri Atxikitzeko Itunaren ondorio diren konpromisoetara egokitzeari buruzko ekainaren 6ko 1255/1986 Legegintzako Errege Dekretuak dioena bete behar duten Aseguru Entitateekin izenpetutako aseguru-kontratuen bidez. Instalazioak baimendu eta horiek ezartzeko baimenean ezarritako epeetan eraiki ondoren eta, halaber, eskudun lurralde organoak haiek martxan jartzeko akta edo aktak formalizatu ondoren, Cepsa Gas Licuado SAri fidantza itzuliko zaio.

Instalazioak egiteko epea: aldizkari ofizialetan baimena azkenekoz argitaratzen den egunetik harako 12 hilabetetik beherakoa.

Cepsa Gas Licuado SAk martxan jartzeko akta egiten den egunetik 30 egun igaro aurretik hasi beharko du gasa eramaten; instalazio osoan, zein zati batean.

Erregai gaseosoen sare eta hartuneei buruzko Erregelamenduan eta horren jarraibide tekniko osagarrietan, zehazki, uztailaren 28ko 919/2006 EDaz onartuan ezarritakoa bete beharko dute instalazioek, eta bai egoki diren xedapen eta arau teknikoak ere.

Banaketa-sareko adar bakoitzak izan beharko du bereizketa-giltza.

Sareak hartune-giltzak izango ditu lurpean, nahiz eta erregelamendu-arrazoiak direla-eta eraikineko giltzarik behar ez izan.

Horniketa seguruago eta malguagoak erdiesteko eta gasaren arloko aurrerakuntza teknologikoei erantzuteko prestatu beharko dira instalazioak. Helburu horretarako, gasaren eroanbide-sistemek, instalazioen kalitateari eta segurtasunari eragin gabe eroan beharko dute gasa. Horniketako gasaren ezaugarriak aldatzeak edo gasa beste batez ordezteak baimena izan beharra dakar, hain justu ere Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeko 77. artikuluko 3. paragrafoan zehaztutakoarekin bat datorrena.

Hasierako baimena eman zuen agintaritzari jakinarazi beharko zaio instalazio hauek izapidetzearena.

Eskatzen duten kontsumitzaile guztiei eskainiko zaie erregai gaseosoen kanalizazio bidezko banaketa, baldin eta proiektuak hartzen duen geografia-eremuan badaude, eta arauzko segurtasun- eta kalitate-baldintzetan emango zaie.

de sus obligaciones derivadas de su compromiso ratificado por la presente autorización, de acuerdo con lo previsto en el artículo 73.4 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre. Dicha fianza se constituirá en la Caja Central de Depósitos del País vasco, en metálico o en valores del Estado, o mediante avales bancarios según lo dispuesto en el artículo 11, apartado 3 de Decreto 1775/1967 de 21 de julio, o mediante el contrato de Seguro Privado, y al Real Decreto Legislativo 1255/1986, de 6 de junio, de adaptación de los compromisos derivados del tratado de Adhesión de España a la CEE. La fianza será devuelta a Cepsa Gas Licuado, S.A. una vez que autorizadas las instalaciones y construidas en los plazos que se establezcan en la autorización para el montaje de las mismas, los Órganos Territoriales competentes formalicen el acta o actas de puesta en marcha de las citadas instalaciones.

El plazo para la ejecución de las instalaciones del caso será inferior a 12 meses a partir de la última fecha de publicación de la autorización en los Boletines Oficiales.

Cepsa Gas Licuado, S.A., deberá iniciar la conducción de gas en un plazo inferior a 30 días a partir de la fecha en que se formalice el Acta de Puesta en Marcha, bien parcial o total de las instalaciones.

Las instalaciones deberán cumplir lo establecido en el Reglamento Técnico de distribución y utilización de Combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias (RD 919/2006 de 28 de julio), así como las disposiciones y normas técnicas correspondientes.

Cada ramal de la red de distribución incorporará llave de independización.

La red incorporará llaves de acometida enterradas independientemente de que pueda prescindirse de la llave de edificio por razones reglamentarias.

Las instalaciones deben preverse para responder a los avances tecnológicos en el campo del gas y lograr abastecimientos más flexibles y seguros. A este fin, los sistemas de conducción del gas deberán ser capaces de conducir gas natural sin ninguna repercusión en la calidad y seguridad de las instalaciones. El cambio de características del gas suministrado, o la sustitución por otro intercambiable, requerirá la autorización de acuerdo con el artículo 77, apartado 3 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos.

La transmisión de estas instalaciones deberá ser comunicada a la autoridad concedente de la autorización original.

El suministro de combustibles gaseosos por canalización se realizará a todos los consumidores que lo demanden, comprendidos en las áreas geográficas pertenecientes al ámbito correspondiente al Proyecto y en las condiciones de seguridad y calidad reglamentaria.

Cepsa Gas Licuado SAk behar bezalako hornikuntza egin beharko du, eta instalazioen mantentzezerbitzu egoki eta eraginkorra eskaini; hots, konponketak, erreklamazioak eta, oro har, erabiltzaileekiko arreta; halaber, baimendutako instalazioak zaintzearen eta haiek ongi funtzionatzearen arduradun izango da.

Arlo honetan une bakoitzean indarrean diren xedapenekin bat arautuko dira gasa saltzeko tarifak.

Hiru.– Baimen hau ondoko baimen eta lizentzien kontra egin gabe ematen da: udalen edo probintzien eskumen pekoak direnak edo obrak segurtasunez egiteko beharrezkoak direnak, eta, batez ere, ingurumena babesteari eta hirigintzaren eta lurralde antolamenduari dagozkionak, eta bai Arabako Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Historikoaren Zerbitzuari dagokionak ere.

Lau.– Edozelan ere, baimen hau ez da ematen monopolio-erregimenean eta ez du ekarriko eskubide esklusiborik.

Bost.– Martxan jartzeko akta eskuratzeko, Arabako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko dira obra zuzendaritzako ziurtagiriak, probenak eta tarteko diren erakundeen baimenak; halaber, gas-sarea non dagoen eta sarea beste zerbitzuekin non gurutzatzen den zehazten duten «as built» planoak ere aurkeztu beharko dira.

Ebazpen honek ez du amaitzen administraziobidea, eta Industria eta Energiako sailburuordeari zuzenduta gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik harako hilabeteko epean, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoarekin bat etorriaz.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 28a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

Cepsa Gas Licuado, S.A. deberá mantener un correcto suministro y un adecuado y eficiente servicio de mantenimiento de las instalaciones, reparación de averías, reclamaciones y, en general, de atención a los usuarios, siendo responsable de la conservación y buen funcionamiento de las instalaciones que se autorizan.

La determinación de las tarifas de venta de gas se regirá por las disposiciones vigentes en el momento sobre la materia.

Tres.– La presente autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial u otros, necesarios para la realización con seguridad de las obras, y en especial, las relativas a la ordenación del territorio y urbanismo, a la protección del medio ambiente y las del Servicio de Patrimonio Histórico del Departamento de cultura de la Diputación Foral de Álava.

Cuatro.– La presente autorización en ningún caso se entenderá concedida en régimen de monopolio ni concede derechos exclusivos.

Cinco.– Para la obtención del acta de la puesta en marcha deberán presentarse en la Delegación Territorial de Álava los correspondientes Certificados de Dirección de Obra, de pruebas y de permisos de organismos afectados, así como planos «as built» donde se determina la situación de la red gas y los cruces de ésta con otros servicios.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de octubre de 2009.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.